



703/2012 Ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak), A.2 (Goi-mailako teknikariak), B.1 (Diplomadun Sanitarioak) eta B.2 (Erdi-mailako Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendak).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (EHAA, 232. zk, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautu behar zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa lortzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.


Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren otsailaren 29ko 90/2012 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web gunean aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, bi modalitateetan: bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (2011ko kontratazio-zerrendak), 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian araututako irizpideen arabera ordenatuta.

Aldi baterako zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Argitaratzeko agintzea aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak), A.2 (Goi-mailako teknikariak), B.1 (Diplomadun Sanitarioak) eta B.2 (Erdi-mailako Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendak).

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko diote Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean ebazpen hau web-gunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

 **Osakidetza**
Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 19an.
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juana Fernández Refoyo

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



Resolución 703/2012, de 19 de noviembre de 2012, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de las listas definitivas de contratación temporal, en sus modalidades de lista de vacantes y lista de sustituciones (listas de contratación temporal 2011), de los Grupos Profesionales A.1 (Facultativos/as Médicos y Técnicos), A.2 (Técnicos Superiores), B.1 (Diplomados/as Sanitarios/as) y B.2 (Técnicos Medios).

En virtud de la Resolución 4235/2008, de 28 de noviembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud (B.O.P.V. n° 232, de 3 de diciembre de 2008), se aprobaron las bases generales que habían de regir la Oferta Pública de Empleo 2008 para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante el Acuerdo de 9 de mayo de 2011 (B.O.P.V. n° 106, de 6 de junio de 2011), del Consejo de Administración del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, se regula la elaboración y gestión de las listas de contratación temporal en Osakidetza-Servicio vasco de salud derivadas de la Oferta Pública de Empleo 2008.


Por medio de la Resolución 90/2012, de 29 de febrero de 2012, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se publicaron en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud las listas provisionales de contratación temporal en sus modalidades de lista de vacantes y lista de sustituciones (listas de contratación 2011), ordenadas según los criterios regulados en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011.

Analizadas las reclamaciones efectuadas en relación a dichas listas provisionales,

RESUELVO:

Primero.- Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de las listas definitivas de contratación temporal 2011, en sus modalidades de lista de vacantes y lista de sustituciones, de los Grupos Profesionales A.1 (Facultativos/as Médicos y Técnicos), A.2 (Técnicos Superiores), B.1 (Diplomados/as Sanitarios/as) y B.2 (Técnicos Medios).

Segundo.- Contra esta resolución las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la publicación en la página web de la presente resolución.

 **Osakidetza**
En Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 2012
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Fdo.: Juana Fernández Refoyo

DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD